



2012KO MARTXOAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko martxoaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2012ko otsailaren 23an egindako bilkurako akta.

Albisu zinegotziak esaten du galdera eta erreguetan jasotzen den berak esandakotan akatsa dagoela, datorren hilean atez atekoa martxan jarriko dela jartzen duen lekuan datorren urtean jarri behar duela.

Alkateak esaten du baita ere puntu horretan bertan, zera jasotzen dela "...ea gaia aztertu behar den ala erabakita dagoen eta azteru behar bada eskatzen duela gaia ingurugiro, hirigintza eta ogasun batzordeetan aztertzea" eta hor ulertu behar dela aztertze hori osoko bilkura egin aurretik tratatuko zen dela eta ez denboran zehar.

Idazkariak esaten du akta ez dela esaten den guztia jasotzeko garrantzitsuena jasotzen saiatzen bada ere.

Gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da bertaratutako guztien aldeko botuekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.



III.- 2011KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

2011ko aurrekontuaren likidazioaren datu esanguratsuenen azalpena egiten da. Esaten da, banatu den dokumentazioan ikus daitekeenez diruzaintzako gerakin gordina 931.252,62 euroko dela eta honi kreditu kobragaitzen kenketa egin ondoren gerakin likidoa 564.917,79 eurokoa dela. Bestalde Aurrekontu emaitza gordina -1.462.058,47 eurokoa izan dela eta honi diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioen zenbatekoa kendu ondoren doitutako emaitza -170.009,75 eurokoa izan dela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA 4. FASEA LANEN 7. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza dararamaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Eva Caceres arkitektoa eta Nagore Lasa arkitekto teknikoek 4. faseko zazpigarren obra-egiaztagiria luzatu dute. 4. faseko 7. obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMA ZAZPI MILA BERREHUN ETA HAMAR EURO ETA HIRUROGEITA HAMA ZAZPI ZENTIMOTakoa (137.210,77 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko zazpigarren (7.) obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

V.- HONDAKINEN BILKETA SISTEMA.-

Alkateak hitza ematen dio Ingurugiro Batzordeko presidentea den Garmendia zinegotziari gaiaren azalpena egin dezan. Honek honela egiten du azalpena:

Gaur egungo gizarte kontsumistak erabilpen bakarreko produktuz josi gaitu, naturak emandako baliabideak eredu lineal batean kontsumitu eta zabortegira botatzera eramán gaitu. Denbora agortzen ari da eta behar-beharrezkoa dugu ikuspuntua aldatu eta eredu zirkularrerako pausoa ematea. Natur baliabideen ustiaketa ahalik eta txikiena izan dadin, baliabide horiek naturara edo bizitzaren ziklora itzuli, berrerabiltzera eta birziklatzera eramán beharko gaitu. Errauskailurik ez dugu nahi, baliabideak pozoi bihurtzen dituelako (dioxinak, furanoak), hau da, gure osasuna kaltetzen duelako, bai arnasketa bideetik, bai elikadura katetik eta ekonomikoki hipotekatzen gaituelako .

Denbora agortu da eta erabakiak hartu beharrean gaude. Lehen dena nahastuta bildu eta ez birziklatzetik egun %43ra pasa gara. Garapenean gorantz jarraitzeko, sistemarik eraginkorrena atez-atekoa dela uste dugu zero zabor bidean. Gure batzordetik garbi dugu errauskailuari alternatiba eraiki behar zaiola.

Inondik inora ezin dugu onartu birziklatu daitezkeen gaiak zabortegira edo erraus-tera bota eta horregatik kobratzea, ondo bildu ezker lehengai bezala ordaintzen digutenean. Ez gaude baliabideak eta dirua alferrik galtzeko garaietan. Atez-ateko sistema da gaur egun bilketa sistema eraginkorrena.



Hori dela eta Ingurugiro batzordeak udal osoko bilkurari honako hau onartzea proposatzen dio:

1.- Lazkaoko udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, atez-ateko sistema jar-tzea Lazkaoko herrian.

2.- Sasieta mankomunitateari, GHK-ri, Foru aldundiari, eta Gipuzkoako Batzar Na-gusiei erabaki honen berri ematea.

3.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Lazkao zero zabor lurraldea bihurtze-ko bidean.

Hau guztia burutzeko, Sasieta Mankomunitatearekin lan-batzordea osatzeko es-kaera egingo du.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du bi atal ezberdinetatik aztertu nahi dutela gaia, bat gaia bera, zabor bilketa sistema eta bi gaiak udal honetan daraman prozedura. Proze-durari dagokionean esaten du aurreko osoko bilkuran esandakoaren harira, gaiaren berri prentsaren bidez jakin izan dutela atez ateko bilketa sistema Lazkaon 2013an jarriko dela martxan, eta egin den bilera informatiboan ere deialdia nola egin den eta zein prozedura jarraitu den ikusi ondoren bertara ez joatea erabaki zutela, beraien nahia joatea bazen ere. Gaiari berari lotuz esaten du beraien ustez gauzak nahastu egiten direla, ze gauza bat zaborra sortzea da, beste bat biltzea eta beste bat tratatzea. Esaten du baita ere hemen zaborren bilketan edukinontzi marroiak jarri zirela txartelarekin eta iruditzen zaiela gai ho-netan ere teknologia balio duela, herri-argiterian, ateen sarrailetan eta abarretan tekni-kologia jarri den bezalaxe. Esaten du baita ere beraien ustez Itsasondoko ereduak ere ba-lio izan dezakela hemen ere. Esaten du baita ere birtziklatu nahi duenari aukerak eman behar zaiola eta birziklatu nahi ez duenari oztopoak jarri. Eta azkenik esaten du ez zaiela garbi gelditzen gaur onartu behar denekin zer onartzen den, baina bai saiatuko direla gaur onartzera dihoan poste jartze horretako posteak kentzea eta edukinontziak berriro jartzea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gai honen inguruan mozio bat ere aurkeztu dutela eta behar bada egokiena biak batera eztabaidatzea zela. Esaten du baita ere ez de-la inolako aurrikuspenik egiten, ez dakitela ze kostatuko den sistema berria martxan jar-tzea, ez lehengoa kentzea, eta ez dakitela ezta ere bildutako zaborra horri zein tratamen-tu emango zaion, ez dakitela proposatzen den sistema berri honi buruzko gauza asko. Esaten du baita ere proposatzen den sistema berri honek askozaz ere eragozpen gehigo sortzen dizkiola herritarrari, egia baldin bada ere biltze mailak handitu egiten direla gaur egungo bilketa sistemarekiko, baina esan behar dela baita ere sisteman sartzen ez diren zaborrak ez direla kontabilizatzen eta horiek ez direla birziklatzen ondorioztatu beharko dela. Eta esaten du baita ere lehen Gipuzkoa osoan bilketa sistema bakarra zegoela eta orain hori hautsi egiten dela. Esaten du baita ere orain martxan jarri nahi den sistema hau ez dagoela ondo planteatuta ez itxurari dagokionen eta ezta ere mamiari dagokionean eta ezta zioari dagokionean ere eta guzti honengatik aurka bozkatuko duela.

Alkateak (Bildu) bieri erantzunez esaten du, aurrena Urkola zinegotziari erantzun-ez, beraien ikusten diotela zerikusia bilketari eta tratamenduari, izan ere birziklatu daite-keen guztia birziklatzen bada errausteko dagoena asko gutxitzen delako eta errausgailua-ren zentzua ere asko mugatzen delako. Bilera informatiboaren deialdiari buruzko prozedu-



rari esan duenari erantzunez esaten du beraien ustez deialdia ondo egin zela uste duela. Ezartzea planteatzen den sistemaren emaitzei buruz, esaten du emaitzak asko hobetzen direla oso nabarmena dela, %43tik %80ra igotzen delako. Eta esaten du baita ere pozten dela beste taldeak ere birtziklapena handitu dadin ahaleginak egitearen aldekoak direla ikusteak. Sernari erantzunez, esaten du, planteatu dituen zalantzen aurrean esan nahi diola orain %80ko birziklapen emaitzak dituela kontrastua duen sistema baten ezarpena onartzeko garaia dela gero sistema hori inplantatzeko garaia iristen denean, herri bakoitzaren ezaugarriak zein direnaren arabera erabakiak hartzen joateko. Esaten du baita ere atez ateko bilketa herritarrarentzat gogaigarria dela esan duela baina gogaigarria izan daitekela baita ere errefusa gehiago sortzea eta beraienez ez dela baliozkoa zer den eta zer ez den gogaigarria diskurtso hori erabiltzea. Eta esaten du baita ere orain arte Gipuzkoan bilketa sistema bakarra zegoela esatea ez dela zuzena (no es correcto) izan ere hiru urte badira herri batzuetan atez ateko sistema jarri zela eta beraz Gipuzkoan aurretik ere bi sistema zeuden funtzionamentuan.

Gaiaren inguruan zabal eztabaidatu ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu) eta aurkako 5 botuz (EAJ, PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

VI.- HIPOTEKAK EZIN ORDAINDU IZATEAGATIK ETXEA KENTZEAREN ONDORIOZ SORTZEN DEN HIRILURREN GAINBALIO GEHIKUNTZA ZERGAREN INGURUKO MOZIOA.-

Etxebizitzak eskuratzeko kredituak ez ordaintzeagatik egiten diren exekuzio hipotekarioetan, exekuzio horien ondorioz oso egoera korapilatsuan geratzen dira etxebizitzaren titularrak. Horri dagokionez, hiru lurralde historikoetako foru gobernuen arduradunek erabaki dute modu harmonizatuan erantzutea Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren aldaketari buruz ARARTEKOak emandako 11/2011 gomendioari, etxebizitza hipoteka betearazteagatik kostu bidez eskualdatzen den kasuetan. Proposatuta den konponbideak dio exekuzio hipotekarioa bultzatzen duen entitate zergadunaren ordezkari izendatu behar dela, bera baita exekuzio horrek dakarren eskualdaketaren onuraduna.

Hau kontutan izanda, aurrekoa dagokion Foru Arauren onarpenean islatzen ez den bitartean, eta udal honek ere hipoteka ezin ordaindu izateagatik etxea kentzen zaionari gainera hiri-lurren gainbalio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa bidaltzea guztiz bigabea dela iruditzen zaiolako, BILDUren eta EAJ talde politikoek udal osoko bilkurak ondorengoan onar dezan proposatzen du:

Hipoteka ezin ordaindu izateagatik etxea kentzearen ondorioz sortutako hiri-lurren gainbalio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa exekuzio hipotekarioa bultzatzen duen entitateari bidaltzea, bera baita exekuzio horrek dakarren eskualdaketaren onuraduna.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gaiaren mamian bat egiten badu ere Udala egoera korapilatsuan aurkitu daitekeela hau aplikatzerakoan, izan ere zerga hau Foru Arau batean araututa dago eta beraz Udalak ez dauka berau arautzeko ahalmenik, eta oraingo hau onartu eta aplikatzeak lege segurtasunik gabeko egoerara eramanez udala eta horregatik abstenitu egingo da.

Goenaga zinegotziak (Bildu) esaten du ogasun batzordean esan zen bezala zerga hau arautzen duen foru araua aldatzeko asmoetan dabiltzala eta aldaketa hau ekainerako



izango dela uste dela, baina oraintxe bertan gai honek ukitzen dien kasuak badaudela udal honetan eta hauei aurre egiteko aurkeztu dela mozio hau.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek, lege aldetik egon daitezkeen zalantzen gaintik proposamenarekin aurrera egitearen aldekoak direla.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak aldeko 11 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio 1ez (PSE-EE) mozia onartu egiten du.

VII.- PSE-EE-REN ATEZ-ATEKO BILKETA SISTEMAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"JUSTIFIKAZIOA

Duela denbora gutxi Bilduko 34 alkatek, tartean gure Udala, hondakinak jasotzeko modu selektibo sistema berria martxan jartzearen berri adierazi dute, Atez ateko bilketa hain zuzen ere. Bere sustatzaileek diotenaren arabera hondakina osatzen duten frakzio desberdinak modu txukun eta ordenatuan gordetzen dituzten edukinontzi desberdinak desagertuko lirateke bide publikotik. Sistema honekin jarraitzea erabaki duten Udalek, bosgarren edukinontziaren erabilera zabaltzen ari dira, bertan materia organikoa bakarrik jasotzen da ondoren bere tratamendu propioa izan dezan eta ixuriketa edo errausketa ekidin.

Atez ateko sistemak berriz garbitasunean, osasun egoeran eta gure kale eta plazetako baldintza estetikoetan atzerakada ekarri ez ezik elikadura jarraibide jakinak inposatzen ditu, hau horrela, materia organikoa astelehen, ostegun eta larunbatetan utzi ahal izango da. Birziklatu ezin daitekeen frakzioa berriz astean behin utzi ahal izango da.

Sozialistok herritarrak ohartarazi nahi ditugu Udalari atez ateko sistema honek kostuen gorakada nabarmena ekarriko diola. Langile gehiago beharko dira jasotze lana egiteko eta zaborraren tasak ezin bestean gora egingo dute.

Bestalde, jakin badakigu Bilduk Gipuzkoan agintzen duen erakundeetan, aurreko legegintzaldian hondakinen inguruan onartuta zegoen plangintza integrala geldiarazi duela. Bertan behera geldituko dela herri eta hirietan aparte jasoko diren materia organiko kantitate itzelei erantzuna emango dien zenbait tratamendu instalazioen garapena. Honen ordezkari Bilduk materia organikoa inguruko herrialdeetara kopuru handietan eramatea eskaintzen du, hala nola Lapurdi edo Nafarrora, Iparralden.

Kudeaketa arazo larri honi Gipuzkoan ditugun birziklatze kopuru altuek alde batera utziz eta inprobisatuz aurre egiten ari zaio. Oso kezagarria egiten zaigu krisi garai haueetan ekonomia baliabideen xahuketak sekulako indarra hartzea.

Sozialistok materia organikoa banatuta jasotzea nahi dugu, kalitatezko konposta bihur dadin, gero nekazaritzan, herri parkeetan eta lorategietan erabiltzeko. Hainbeste arazo sortu dituzten Gipuzkoako zabortegiak ere itxi nahi ditugu, eta horren guztiaren kudeaketa izan dadila erizpide eraginkorrak eta efikazak erabiliz. Ez ditugu onartzen atzera-



kada suposatzen duten sistemak, baliabideak alferrik galtzen dituztenak eta egun inguru-
giro arloan indarrean dagoen planifikazioa ezagutzen ez dutenak.

Hemen esandako guztia kontutan izanda, PSE - EE udal taldeak honako hau propo-
satzen du:

Lehenengo.- Udal Osoko bilkurak atez ateko sistemaren inposaketari erabateko ezetza
ematea, eredu zikina, estetikarik gabea, garestia, ezerosoa eta eraginkortasun gabea de-
lako.

Bigarrena.- Udal Osoko bilkurak egun ditugun birziklapen atazak handituko dituela berres-
ten du, posible den neurrian zabortegira edo energia balorizazio plantara eraman behar
den zabor bolumena gutxitzeko helburuarekin.

Hirugarrena.- Udal Osoko bilkurak Alkateari exijitzen dio materia organiko biodegradaga-
rria Gipuzkoako lurraldean konpostatua izan dadin beharrezkoak diren tratamendu plantak
eraikitzen laguntzea, frakzio horren jasotzea martxan jarri aurretik. Aldi berean onartzen
da gure herrian sortutako konpostaren erabilerari lehentasuna ematea gure lorategi, par-
ke eta gune berdeetan. Guzti hau joan-etorrien kostuak ekiditeko, eguratsera emisio ku-
tsagarriak ekiditeko, eskualdetik kanpo materia organikoaren zentzurik gabeko bidaietan
erregaiaren kontsumoa ekiditeko."

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du ez dihoaztela lerroarteko irakurketak egiten
hastera eta ez direla sartuko zein den nahiago duten zaborren bilketa sistema esatera, au-
rretik nahiko garbi gelditu delako atez atekoaren aurrean zein den beraien jarrera, eta
baiezkoa emango diotela mozioaren testuari baino gehiago mozioaren izenburuan azaltzen
denari, hau da, bai zaborra atez ate ez biltzeari.

Garmendia zinegotzia (Bildu) Serna zinegotziari zuzentzen zaio eta esaten dio lasti-
ma dela berak honela pentsatzea eta bere Madridko alderdikideak hemen ez egotea, ze
han, bere kongresuan esandakoaren arabera, zaborren errausketaren aurka daudela eta
baita ere zaborraren sailkatutako bilketaren alde hala nola atez ateko bilketaren alde ahal
den herrietan, eta guzti hori zero zabor lortzera bideratutako politikaren barruan. Eta be-
raz ez dela Bildu bakarrik atez ateko sistemaren alde dagoena.

Serna zinegotziak erantzuten dio Beasaingo Bilduko bere alderdikideak atez atekoa
martxan jartzeko konbentzitzen dituenean joango dela bera Madridkoena.

Gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7
botuz (Bildu) mozioa atzera botatzen du.

VIII.- BATERAGUNE AUZIAREN AURREAN BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du EAJrekin izandako elkarrizketen ondoren
mozioaren azken paragrafoaren zati bat kendu dutela eta beraz mozioa honela geldituko
litzakela:

Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea azter-
tuko du Madrilén. Arnaldo Otegi, Rafa Díez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodríguez eta Sonia



Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.

Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoa-ri ekiteagatik hain zuzen ere.

Ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen ez eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik.

Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:

Udal honek, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.

Irastortza zinegotziak (EAJ) mozioaren egokitzapen hori zergatik eskatu zuten esplikatzeko eta esaten du mozioan eskatzen dena bidezkoa dela eta bidezkotasunean oinarritu behar dela aske uzte hori ez herritarren gehiengoan hala eskatzean, nahiz eta hori horrela izan, bidezkotasunean oinarritzeak indar gehiago duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez zekiela mozioa aldatu egin zenik. Esaten du baita ere beraiek beste mozio bat zeukatela hemen esandakoari kontrajarriz non bere jarrera azaltzen den. Bere jarreraren auzitegi gorenari udalak eskatu beharko lioke lehen bai lehen eman dezala Bateragune auziaren epaia; udalak konpromezua azalduko luke auzitegi gorenak emandako epaia errespetatzeko, epaia edozein dela ere; udalak eskatzen dio auzitegi gorenari kontutan har dezala Euskadik bizi duen une politikoa. Eta gehitzen du ondo iruditzen zaiela udalak epaitegi gorenari eskatzea epaia ematerakoan kontutan har ditzala egon diren aldaketak baina bestalde eta botereen bereiztearen izenean honek bere epaia askatasun osoz eman behar duela eta edozein exigentzi askatasun horren aurka jotzea litzateka. Eta bukatzen du esanez guzti honegatik, eta mozioaren testuak hau ez duela bermatzen ikusita, aurka bozkatuko duela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko 11 botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu 1ez (PSE-EE) mozioa onartu egiten du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jende artetik pertsona bat Serna zinegotziari zuzentzen zaio zaborren gaiaren inguruan.



Serna zinegotziak erantzun egiten dio.

Jende artetik baita ere, beste pertsona batek hitzegiten du, honek ere zaborren gaiaren inguruan.

Serna zinegotziak erantzun egiten dio.

Jende artetik beste pertsona batek hitzegiten du baita ere zaborbilketa gaiaren inguruan.

Albisu zinegotziak erantzun egiten dio.

Eztabaida pizten da berriro zinegotzien artean zaborren gaiaren inguruan.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko bederatzia eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.